

Herri programa proposamena
2019

Etorbizuneko Herria

ehildu

Aurkibidea

1. Jatorri aniztasuna eta migrazioak	05
2. Gazteria	13
3. Hizkuntza politikak	19

Jatorri aniztasuna eta migrazioak

Diagnostikoa, kokapena

Berdintasuna herritar guztiak eskubide eta betebeharreri dagokienez parekatzen dituen printzipioa dela kontuan hartuta, gizarte-aurkakotasunen desagerraraztea bultzatzen dugu, sortutako aberastasuna birbanatzearen bidez gizarte osoaren ongizatea ziurtatu ahal izan dadin. Ildo horretan, erabat baztertzen dugu jaioterria kategorizazio irizpide gisa erabiltzea, herri honetan bizi garen guztiok euskal herritarrek garelakoan baikaude, jaio garen lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere.

Aniztasun kulturalaren kudeaketa eredu demokratikoen arabera bideratu behar da, multikulturala den gure jendartea osatzen duten pertsona eta errealitate anitzen elkarbizitza bermatuko duen moduan.

Eskubide guztiak pertsona guztientzat bermatuko duen harrera herria izan nahi dugu, jatorri aniztasunarekin eta kulturarekin erlazionatutako errealitate guztietan (pertsona migratzaileak, euskal jatorria duten pertsonak, jatorri-estatu desberdinetako pertsonak, herri ijito), kolektibo eta komunitate bakoitzeko izaera propioa kontuan hartuz.

Euskal Herriak ez ditu eskumen eta erreminta propioak aniztasunaren eta migrazioaren kudeaketa burutzeko, horregatik gaurko egunean ezin erabaki ditzakegu garatu nahi ditugun politika propioak. Ondorioz, Euskal Herrian bizi den oro euskal herritarra eta beraz eskubide guztien jabe izan behar dela argi badugu ere, estatuak mugak jartzen dizkigu horren garapenerako. Bide honetatik, herritar guztiei zuzendutako gure eredu propioa daukagu, parte hartzailea, zehar lerrokoa eta inklusiboa, erreferentziatzat Euskal Herria hartzen duena eta hastapen moduan nazio politiko izaera dugula zein kulturalki gutxituak garelako kontuan hartuko duena.

Berdintasunaren printzipioaren arabera, eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak dagozkigu, eta administrazio publikoari dagokio hori bermatzea. Jakin badakigu arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialek eragindako migrazio-fluxuak direla eta euskaldun asko eta asko barreiatu direla

mundu osoan, eta, era berean, jatorri askotako pertsona eta talde ugari iritsi direla Euskal Herrira. Horren ondorioz, Euskal Herria askotarikoa da herritarren jatorriari dagokionez, eta arlo horretako politikei era integralean ekiteko beharrezkoak diren eskumenak eduki ez arren, migrazioaren eta aniztasunaren eremuan paradigma aldatzea eta ikuspegi propio, zeharkako eta integral bat txertatzea proposatzen dugu.

Ikuspegi horren printzipioak, nolana ere, Migrazioa eragiten duten arrazoiak anitzak dira: kulturalak, sozialak, politikoak eta, gehienetan, ekonomikoak. Arrazoi horiek eragindako beharrek barreratu dituzte euskal herritar ugari munduan zehar eta, alderantziz, jatorri anitzetako pertsona ugari Euskal Herriratu.

Sistema kapitalistak, bere eredu ekonomikoa aurrera ateratzeko, herrialde anitz pobretu ditu gutxi batzuk aberasteko eta, ondorioz, pobretutako herrialdeetako gizon-emakumeen bizi-baldintzak minimoen azpitik jarri. Horrek migratze-beharra eragin du eta behar hori baliatu du sistema kapitalistak, interesatu zaionean, jatorri desberdinetako langile klaseak elkarren kontra jartzeko. Zertarako? Injustizia horren errua bere sorburua den kapitalismoaren gain beharrean, langile-klasearen gain jartzeko; oro har, ahulenen gain. Horrela, aspaldi honetan, krisi ekonomikoa baliatuz, inolako funtsik gabeko mezu interesatuak zabaldu dira kultura eta jatorri jakin batzuetako herritarren kontra.

Enplegu duin bat izateko zailtasunak eta prestazio sozialen beharra areagotzen ari diren honetan, euskal herritar ugariengan sarrera eta eragina duten mezuak ugaritzen ari dira (“lana kentzen digute”, “bertakoei dagozkigun diru-laguntzak eramaten dituzte”...). Oinarri errealik gabeko zurrumuruak baino ez diren mezu horien eraginez, jende askok areriotzat, bere egoera kaskarraren erruduntzat eta lehiakide desleial eta arriskutsutzat hartzen ditu jatorri edota kultura jakin batzuetako herritarrak. Mezu horiek beldurra eragiten dute eta beldur horrek jarrera arrazistak eta xenofoboak azaleratzeko baldintzak sortu ditu.

Jatorri eta kultura aniztasunaren kudeaketa, beraz, gai konplexua da eta arduraz hartu beharrekoa. Hori horrela izanik, eta Europatik zein estatuetatik inposatu dizkiguten migrazio lege eta araudi eskubide-urratzaileek bestelakorik badiote ere, EH Bildutik argi daukagu pertsona guztiok daukagula duintasunez bizitzeko eskubidea eta, edonon jaioak izanik ere, bizitza duin horren bila edonora joateko askatasun osoa. Hori dela eta, EH Bildurentzat, norberaren identitatea erabat errespetatuz, herri honetan bizitzea erabaki duen pertsona oro euskal herritarra da, edonon jaioa dela ere; eta euskal herritar guztioi bermatu behar zaizkigu eskubide, erantzukizun, betebeharrak eta aukera berberak, gure jatorria, sexua, sinesmena, etnia, identitatea, sorlekua edo jatorria edozein dela ere. Eta hori erakunde publikoen lana da.

Helburu orokorra

Pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditu EH Bilduk. Eta aldarri hori errealitate izan dadin behar besteko neurriak abian jartzeko konpromisoa hartua dugu. Horren bermerako, administrazio publikoak herritarrei erabat irekiak egon behar dira, bertatik kudeatuko diren baliabide eta zerbitzu publiko guztietara iristeko aukera erraztuz. Elkarbizitza da gakoa. Horretarako, elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta elkar aitortzea ezinbestekoak dira. Elkarren ezagutza eta ulertzea ahalbidetuko duten dinamikak eta jarduerak beharrezkoak ditugu, elkar aitortzaren eta, ondorioz, elkarbizitzaren oinarri baitira. Hori dela eta, alor honen dimentsio anitzak aintzakotzat hartuz, administrazio publikoetan aurrera eramaten diren politika orotan zehar-lerro gisa lantzea ezinbestekoa da eta beharrezko dugu mota anitzetako harrera, elkar ezagutza eta bizikidetzaren planak diseinatu eta martxan jartzea, instituzio-arteko elkarlanean oinarrituz.

Aniztasun kulturala euskal herritargoa bere osotasunean hartuko duen ikuspegi integraletik landu behar da. Ezin dugu ahaztu funtsezkoa den alderdi bat, hots, hiru lurralde historikoak eta Nafarroak, mendebaldeak sorrarazten dituen gerretatik ihesi doazen eta bidezko asilo-eskubidea baliatu nahi duten pertsona guztientzako harrera-lekutzat hartzeko beharra. Era berean, herritartasun unibertsalari lotutako eskubideak aktiboki defendatzen ditugu, eta ikuspegi propio batetik lantzen ditugu. Migratzaile eta errefuxiatuei eta haien bidezko eskubideak bermatzeko lan egiten duten erakundeek baldintzarik gabeko babesa bermatu nahi diegu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Egungo jatorri- eta kultura-aniztasuna kohesio-elementu bihurtzea. Elkarbizitza sustatzea

- Lurraldeko/herriko elkarten eta erakundearen arteko lankidetzaren ziurtatzeko mekanismoak sustatzea.
- Jendartean parte hartzeko programa diseinatu eta inplementatzea, jendartean eta politikan parte hartzeko dinamika bat hainbat mailatan garatuko duena kultura-aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruan, lurraldeko/herriko kultura aniztasunaren isla diren errealitate guztiak aintzat hartuz.
- Lurraldean/udalerrian bizi diren beste jatorri batzuetako pertsonen herri eta herrialdeentzako laguntzari lehentasuna emateko lankidetzaren eta elkartasun-programak egokitzea, batzuk herri minorizatu edo estaturik gabeko nazioetatik etorritakoak izan daitezkeela aintzat hartuta.
- Elkar ezagutzeko (“ezagutzetik aitortzara”) neurriak diseinatu eta inplementatzea herritar guztientzat, Euskal Herria eta lurraldeko/hiriko kultura-elementu nagusiak ezagutzera emateko bertara iristen direnei edo beste jatorri bat daukatenei, eta, bestetik, jatorriko komunitate, herri edo nazioetako errealitatea, hizkuntzak eta kultura, eta egoera politikoa gainerako herritarrei erakusteko.

- Elkarbizitza sustatzeko programa propioak garatzea elkarrekiko ezagutzan eta aitortzan oinarrituta, jarrera maternalistik gabe eta xenofobiaren aurka borrokatuz, jendartea kohesionatzeko dinamikak eta topaketa-eremu komunitarioak sortzeko helburu nagusiarekin.
- Senidetzeko eta trukerako programa bat sortzea, lurraldean bizi diren pertsonen beste jatorri batzuetako herri eta herrialdeekin elkarlanean.

2. Gure herritar guztiek jendartean eta politikan parte hartzeko aukera dutela bermatzea

- Lurraldeko eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzak eta koordinazioarako gune misto bat sortzea, aniztasun- eta migrazio-alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko —eta lankidetzak eta elkarlanerako eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko— esparru baten antzera.
- Hainbat jatorri edo kulturatan antolatutako elkarteak sustatzeko eta elkarte horiei laguntzeko eta laguntzak emateko programa.
- Bertako payo edo ijitoez, migratzaileez osatutako elkarteekiko edo elkarte mistoekiko harremanak ezartzea eta elkarlanerako oinarriak zehaztea. Elkarleen arteko baterako lanerako guneak ahalbidetzea.

3. Arau, ekimen eta politika publiko guztiek pertsona guztientzako eskubide guztien inplementazioa ziurtatzen dutela bermatzea

- Toki-administrazioaren politika eta zerbitzuak lurraldean/hirian bizi diren pertsona guztiei irekitzea, haien jatorria edo lege-egoera (gizarte-, hezkuntza-, osasun-, kultura-, enplegu-, ekonomia-zerbitzuak, etab.) kontuan hartu gabe. Administrazioaren zerbitzu eta baliabideak hainbat hizkuntzatan argitaratzea.
- Osasunarekin, Ekonomiarekin, Enpleguarekin, Gizarte Arretarekin zerikusia duten alorretako politikek herritar guztiak —haien jatorria edozein izanik ere— jomugan dituztela ziurtatzeko neurriak (osasun- eta gizarte-zerbitzuetarako eta enplegurako doako sarbide unibertsala, etab.) , aldi berean aukera-berdintasuna ziurtatuz.
- Kultura-aniztasunerako politikak diseinatu, egikaritu eta koordinatuko dituen zuzendaritza edo organo espezifiko bat sortzea, politika horien zeharkakotasuna ziurtatzeko.
- Kultura Aniztasunari buruzko prestakuntza-programa espezifikoak erakundeetako langileentzat, balio eta printzipioetan heziz herritarrekiko harremanetan inolako diskriminaziorik izan ez dadin.
- Mota guztietako (harrera orokorra, hizkuntza-harrera, elkarbizitza, elkar ezagutzak, parte hartzea, etab.) plan edo programak zehazteko baliabideak eta koordinazioa aktibatzea, pertsona guz-

tiak zerbitzu publikoak jasotzeko aukera izan dezaten beren jatorria edozein izanik ere, eta elkarbizitza kudeatzea, erakundeetatik zein eremu komunitario eta sozialetik.

- Eremu horretan lankidetzarako sare instituzional bat sortzea lurraldeko erakunde guztien artean, eta Euskal Herriko gainerako erakundeekiko lankidetzak-esparruak ezartzea.
- Udalerriei mota guztietako (harrera orokorra, hizkuntza-harrera, elkarbizitza, elkar ezagutzea, parte hartzea, etab.) planak edo programak zehazteko baliabideak eta koordinazioa eskaintzea, kultura-aniztasunaren kudeaketarako politikak bultzatzeko.
- Lurraldeko/hiriko ikastetxeak kultura-aniztasunaren araberrako tratamendu egokia ziurtatzeko behar diren baliabideak hornitzea, ikastetxe bakoitzaren premien arabera.

4. Herritartasuna: euskal herritartasun efektiboa sustatzea, jatorria edozein izanik ere

- Lurraldean bizi diren pertsona guztiek, beren jatorria edozein izanik ere, botoa emateko, elkartzeko eta politikan parte hartzeko dituzten eskubideak babesteko erabil daitezkeen tresna juridiko-politikoen gaineko azterlanak egitea.
- Diagnostiko edo azterlan kuantitatibo eta kualitatibo bat diseinatzea lurraldeko/hiriko jatorri-aniztasunaren benetako argazki bat lortzeko, herritar guztiak bilduko dituen herrialde-ikuspegi batetik.
- Inplikazio instituzionala, salaketa eginez eta lurraldeko/hiriko herritarrak proaktiboki defendatuz, eskubide politiko eta zibilen urraketa larriak gertatzen direnean. Herritarren babesa bermatzea, migrazio-legeek eta araudiek urratutako eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten.
- Euskara-irakaskuntzaren hurbilketa eta doakotasun unibertsala, lurraldean/hirian bizi diren pertsona heldu guztientzat, haien jatorria edozein izanik ere.
- Migratzaileen eta hainbat jatorritako herritarren artean euskaraz alfabetatzea ahalbidetzen duen hezkuntza-eredua sustatzea.
- Osasunarekin, Ekonomiarekin, Enpleguarekin, Gizarte Arretarekin eta beste hainbatekin zerikusia duten arloetako politikek urraldeko/hiriko herritar guztiak —beren jatorria edozein izanik ere— jomugan dituztela ziurtatzeko neurriak: osasun- eta gizarte-zerbitzuetarako doako sarbide unibertsala, aldi berean eskubide- eta aukera-berdintasuna ziurtatuz.
- Euskararen irakaskuntzaren doakotasun unibertsala ziurtatu arte, egoera sozioekonomiko ahulenean dauden pertsonentzako laguntza-programak inplementatzea, euskararen irakaskuntzan xertatzeko benetako aukerak izan ditzaten.

- Beste jatorri batzuetako emakumeek emakume guztiak jomugan dituzten programa espezifikoe-tarako sarbide normalizatua dutela bermatzeko neurriak.
- Lege- eta administrazio-neurriak, administrazioaren laiotasunetik abiatuta, herritarren erlijio-a-dierazpen desberdinen aukera-berdintasuna babesteko.

5. Gure lurraldean bizi diren pertsona guztientzako eskubide guztiak ziurtatzea

- Harrera-sare bat sortzea, diziplinarteko aholkularitza zerbitzu batez hornitua, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren, iragaitzakoak diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- Aholkularitza eta arreta legal eta soziokulturaleko zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, gure lurraldera iristen diren, iragaitzan dauden edo iritsi berri diren migratzaile guztientzat, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak barne.
- Itzulpen-zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, kontuan hartuz, batetik, migratzaileen jatorriko hizkuntzak, eta, bestetik, euskara (harrera-lana egiten dutenei euskara beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera ziurtatuz eta alderantziz).
- Harrera-gida bat argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, kanpotik eta/edo beste jatorri batzuetatik gure lurraldera bizitzera datozen guztientzat, hainbat alorretako (politika, kultura, gizartea, lana, osasuna, hezkuntza, etab.) egoeraren gaineko informazioa eta orientazioa emango duena.
- Beren borondatez itzuli nahi dutenei laguntzeko programak, bereziki egoera sozioekonomiko zailenetan daudenentzat, itzulera duintasun-baldintzetan egiteko aukera izan dezaten. Itzuli nahi duten pertsonen segurtasun fisikoa, materiala, legala eta juridikoa bermatuko da.

6. Gure herritar guztiek jendartearen eta politikan parte hartzeko aukera dutela bermatzea

- Lurraldeko/hiriko eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzaren eta koordinazio-ko gune misto bat sortzea, aniztasun- eta migrazio-alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko eta lankidetzaren eta elkarlanerako —eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko— esparru baten antzera.
- Hainbat jatorri edo kulturatan antolatutako elkarteak sustatzeko eta elkarte horiei laguntzeko eta laguntzak emateko programa.

- Bertako payo edo ijitoez zein migratzaileez osatutako elkarteekiko edo elkarte mistoekiko harremanak ezartzea eta elkarlanerako oinarriak zehaztea. Elkarteen arteko baterako lanerako guneak ahalbidetzea.

7. Xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borroka, bereziki lege eta neurri arrazista instituzionalei aurre egiteko

- Jendartea sentsibilizatzeko kanpaina bat martxan jartzea, banako edo taldeko jarrera arrazista edo xenofoboak desagerrarazteko, zurrumurrueen aurkako kanpainak barne.
- Zurrumurru eta estereotipo arrazista edo xenofoboek aurkako informazio-kanpainak martxan jartzea.
- Xenofobia eta arrazakeria gainditzeko diharduten gizarte-eragileekiko lankidetzaren indartzea.
- Arrazakeria- eta xenofobia-gaien gaineko salaketak jasoko dituen eta jardun horietako biktimei laguntza eta aholku emango dien bulego bat sortzea.
- Lege- eta administrazio-neurri xenofobo edo arrazistak salatzeko dinamika bat martxan jartzea.

8. Euskal Herriaren eskubideak iristen ari diren migratzaileen eskubideekin uztartzea

- Harrera-sare bat sortzea, diziplinarreko aholkularitza zerbitzu batez hornitua, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- Aholkularitza eta arreta legal eta soziokulturaleko zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, lurraldera/hirira iristen diren edo iritsi berri diren migratzaile guztientzat, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak barne.
- Itzulpen-zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, kontuan hartuz, batetik, migratzaileen jatorriko hizkuntza, eta, bestetik, euskara (harrera-lana egiten dutenei euskara beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera ziurtatuz eta alderantziz).
- Harrera-gida bat argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, beste jatorri batzuetatik lurraldera/hirira bizitzera datozen guztientzat, hainbat alorretako (politika, kultura, gizartea, lana, osasuna, hezkuntza, etab.) egoeraren gaineko informazioa eta orientazioa emango duena.
- Beren borondatez itzuli nahi dutenei laguntzeko programak, bereziki egoera sozioekonomiko zailenetan daudenentzat, itzulera duintasun-baldintzetan egiteko aukera izan dezaten.

- Harrera-sare bat sortzea, diziplinarteko aholkularitza zerbitzu batez hornitua, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- Aholkularitza eta arreta legal eta soziokulturaleko zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, lurraldera/hirira iristen diren edo iritsi berri diren migratzaile guztientzat, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak barne.
- Itzulpen-zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari lanean lagunduko diona, kontuan hartuz, batetik, migratzaileen jatorriko hizkuntza, eta, bestetik, euskara (harrera-lana egiten dutenei euskara beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera ziurtatuz eta alderantziz).
- Harrera-gida bat argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, beste jatorri batzuetatik lurraldera/hirira bizitzera datozen guztientzat, hainbat alorretako (politika, kultura, gizartea, lana, osasuna, hezkuntza, etab.) egoeraren gaineko informazioa eta orientazioa emango duena.
- Beren borondatez itzuli nahi dutenei laguntzeko programak, bereziki egoera sozioekonomiko zailenetan daudenentzat, itzulera duintasun-baldintzetan egiteko aukera izan dezaten.

Gazteria

Diagnostiko, kokapena

Euskal gazteria jendartean kokatzen den kolektibo espezifikoa da eta, euskal jendartea bezala, kolektibo hau ere anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara, ez garelako arlo edo eremu zehatzean kokatzen den gazteriaz ari.

Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa izateaz gain, Euskal Herriaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten digun sektorea gara. Beraz, ez gara “hor” gauden gazte bat edo bi, arazo bat edo bi dauzkagunak: gazteok zapalkuntza integrala jasaten dugu, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozorrotua, eta horregatik, honen aurrean irtenbide integralak behar ditugu.

Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharreko esparrua da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriaren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko.

Zentzu honetan, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Euskal Herriko gazteen oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta gazteon nahi eta beharren arabera.

Gazteak zokoratzen dituen herriak nekez izango du etorkizun oparorik. Hori dela eta, gazteon bizitzan eragiten duten aspektu denetan gure hitza entzun eta kontuan hartzen dela bermatu behar dugu. Zentzu honetan, bizitza sozial, politiko eta kulturalean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren oinarritzko baliabide materialak bermatze aldera lan egingo du EH Bilduk. Gazte burujabeak behar ditu herri honek, ondorioz, denon beharrianak asebetetzeko eskaintza zabal eta integralak egin zein martxan jartzea izango da gure helburua:

- EH Bilduk gazteok gure bizi proiektuak (lurralde/herrian) garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak bermatze aldera (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) lan egiteko konpromisoa hartzen du.

- Gazteok modu berezitan pairatzen dugu sistemak eragindako desoreka sozial eta ekonomikoa, prekaritatea errealitate alda ezina sinestarazi digutelarik. Honek, erantzun berezitu eta zehatzak exijitzen ditu, arlo guztiak zeharkatuko dituen neurri ildoak proposatu eta martxan jartzea beharrezkoa izanik.
- Bizitza politiko, sozial zein kulturalean gazteen parte hartzea ezinbestekoa da, gure eskubideak bermatu eta jendartearen transformazioa bultzatzeko beharrezkoa den heinean.

EH Bilduk, beraz, Hego Euskal Herriko gazteen beharrak kontuan hartuz, eremu guztietan haien egoeraren jabetun izan, eta horren aurrean erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteen arazoak jendarte osoaren arazo bilakatzeko lan egin behar dugu, “gazte betaurrekoak” jarriz, herri honen geroa marraztuko duten kide guztiongan. EH Bildu osatzen dugunok emango diren aurrerapausoetan, planteatuko diren aldaketetan, eta aplikatuko diren neurri berri guztietan gazteen beharrianak kontuan hartzeko konpromisoa hartu beharko dugu: egoera irauliz, gazteria periferiatik erdigunera ekarriz.

Helburu orokorra

Gazteok burujabe izan nahi dugu zentzu guztietan. Gure bizitza zein gure herriaren etorkizunaren gainean erabaki nahi dugu. Gazteok, Euskal Herri askea eraiki nahi dugu, aldaketa horren motor bilakaturik. Horregatik, proposatzen ditugun aldaketa guztiak, helburu orokor horren aldeko bidean egingdakoak dira.

Ezinezkoa izango da gure bizitzak sakonki hobetzea, egungo eredu kapitalista heteropatriarkala errotik aldatzen ez badugu. Merkatuen eta kapitalaren mesedetara eraikitako sistema osoa deuseztatu, eta herritarron, gazteen, mesedeetara begira eratutako sistema propioa behar dugu. Honetarako, ezinbestekoa da gaurdanik gure bizi eredu eta filosofian aldaketak ematen hastea, elkartasuna, aberastasuna eta lanaren banaketa, eta pertsonen arteko aukera berdintasuna izanik gure oinarrizko baloreak. Honekin batera, EH Bilduk martxan jarriko dituen politika ezberdin guztietan, gazte ikuspegia barneratzea oinarrizkoa izango da.

Gure eskaintza planteatutako oinarrien baitakoa da, baloreen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteen bizitzak hobetzeko helburuarekin.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Gazteen bizi-baldintza objektiboak hobetzea

- Gazteen baldintzak berrikustea eta haien errealitate eta premietara egokitzea (etxebizitza, oinarrizko errenta, laguntzak, etab.).
- Gazteen premietara egokitutako garraio publikoa bultzatzea, adinaren eta diru-sarreraren arabera, eta landa-inguruneko joan-etorriak aintzat hartuz, bizitzeko beren ingurunetik kanpora irteteko beharrik izan ez dezaten, horrelakorik nahi ez badute.
- Alokairu soziala bultzatzea, tokiko eskatzaile eta eskaintzaileen poltsak sortuz, eta hutsik dauden etxebizitzak berrerabiltzeko bitartekotza-lana eginez, gazteen eta bereziki emakumeen emantzipazioa errazteko.
- Etxebizitza eskubide subjektibo bat denez (hau da, etxebizitza eska daitekeen eskubidea dela onartuta), 18 urtetik gorako edozein pertsonak babesturiko alokairuko etxebizitza bat eskatzeko aukera izango du, eta gutxieneko diru-sarrerera batzuk edukitzea ez da kontuan hartuko dagozkien poltsetan sartzeko.
- Gazteentzako kalitateko enplegua bultzatzeko neurriak aktibatzea, enplegu berdea eta turismo jasangarria sortzeko laguntzak erraztuz.

- Gazte ekintzaileentzako laguntzak, ekimen kooperatiboentzat bereziki.
- Gazteen artean ekintzailetza kolektibo eta soziala sustatzeko programak sortzea honako atal hauek kontuan hartuz:
 - Prestakuntza: ekonomia sozial eta solidariorako eta kooperatibismoaren gaineko prestakuntzarako bitartekoak eskaintzea.
 - Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko eta finantzarioa.
 - Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako produktu-sareak sustatzeko proiektua.
 - Proiektu horiek garatu eta eskaintzeko mintegiak sortzea.
- Lurraldetik/hiritik kanpora lanera joan behar izan duten gazte guztien itzulera ahalbidetzeko ekimenak.
- Lehen sektoreko ustiategi berriak irekitzeko bideak ematea, jasangarritasunaren, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta produkzio ekologikoaren irizpideei jarraikiz.

2. Gazteen artean ahalduntze-prozesuak aktibatzea

- Udallerriak Insituziotik gazteengana hurbiltzea eta kolektibo eta elkarteetan parte hartzen duten gazteen eta bazkide ez direnen parte-hartzerako bideak bultzatzea, haien proiektuak abian jar ditzaten.
- Gazteek beren proiektu propioak garatzeko gune, tresna eta baliabideak jartzea, udalerriko/lurraldeko gazteentzako politiken funtsezko printzipioa den heinean.
- Garatu beharreko politketan parte hartzeko prozesuak jarriko dira martxan, haien norainokoa eta edukiak mugatuz, eta eremu bakoitzean parte-hartzea zehar-lerro bihurtuko da, aldez aurretik adierazi dugun bezala.
- Kultura ez-matxista batean heztea zeharkako ardatza izango da gure gazteentzako politketan, eta dauden genero-desberdintasunak etengabe salatuko ditugu, sentsibilizazioaren mesedetan.
- Parekotasunean, baterako hezkuntzan, aukera-berdintasunean eta errespetuzko harremanetan heztearen alde egiten dugu.
- Sormena sustatu eta bultzatzeko baliabideak aktibatzea, baliabide ekonomiko eta azpiegiturak jarri eta ideiak deskargatzeko gune erkideak sortuz, kulturaren munduko gazte sortzaile eta produktoreen SARE bat osatzeko helburuarekin.
- Eredu alternatibo propioak sustatuko dituzten mekanismoak abian jartzeko programak egokitu eta berritzea, kultura-produkzioan diharduten gazte sortzaileen inplikazioa bultzatuz.

- Gazteen artean “lehiarik gabeko” kirol-praktika sustatzea, lehiaketa arautura bideratuz.
- Gazteen autokudeaketarako guneak lagatzea, gazteek beren proiektuak modu autonomoan garatzeko aukera izan dezaten.
- Sormena sustatzeko ideiak elkartrukatzeko, eta ekimen sozial, kultural eta ekonomikoak bultzatu eta sortzeko topagunean martxan jartzea.

3. *Jarduera instituzionala gazteekiko lankidetzara egokitzea*

- Gazteria-mahai teknikoak sortzea, non Gazteria Arloetako, gaztelekuetako, gaztetxeetako eta gazteek udalerrian edo eskualdean dauzkaten bestelako guneetako teknikari eta arduradunek esperientziak, prestakuntza eta gogoetak partekatu eta gazteentzako politika espezifikoak martxan jarriko dituzten, eskualdean eta udalerrian.
- Gazteen parte-hartzerako mahaia sortzea, non antolaturiko gazteak, zein modu indibidualean gazte bazkideek eta bazkide ez direnek parte hartzeko eta gazteentzat inplementatu beharreko politiken lehentasunak definitzeko aukera izango duten, erabakitzeko ahalmenarekin.

Hizkuntza politikak

Diagnostikoa, kokapena

Bi estatu handien hegemonia linguistikoaren mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarak menpeko estatus juridikoa du.

Euskara ez da hizkuntza normalizatua izango bere lurralde guztietan hizkuntza ofiziala ez bada. Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Toleratu egiten da erdaldunen elebakartasuna eta galarazi euskaraz bizi ahal izatea. Natural hartzen da erdaldunak erdara hutsean bizitzea eta, berriz, euskaldunak euskara hutsean bizitzea galarazi egiten da.

Bizkaia lurralde euskalduna da: biztanleen %58tik gora euskaldunak edo ia-euskaldun dira. Gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen belaunaldia ia-ia osorik da euskalduna.

Gipuzkoan euskara egoera gutxituan jarraitu arren, lurralde euskalduna da ezagutzari dagokionez: biztanleen %53 euskaldun eleaniztuna da eta beste %23 euskaraz ulertzeko gai da; gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen %77 euskaldun eleaniztuna da.

Ukaezina da Euskal Herriaren zati batean azken mende erdian, eta horrenbestez, euskal hiztunen herritar eskubideetan ere hobera egin dela. Herri ekimena izan da hobetze horren kimu eta akuilu, eta hazi hori administrazioak bere egin duen eremuetan lortu direla, zalantzarik gabe, emaitzarik onenak.

Horrenbestez, EH Bilduren ustez, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan hogeita hamar urteko hizkuntza politikaren ondoren, euskararen garapen osoa azkartu eta lortzeko politika eraginkorra, lehentasunezkoa eta burujabea garatu eta gauzatu behar dugu. Horretarako, besteak beste, euskarari estatus egokia ematea ezinbestekoa da, hizkuntza normalizatuari dagokiona, alegia. Eta ezagutzatik erabilerarako galga gainditzeko, bizimoduko arlo guztietan -xumeenetatik jasoenetara- herritarrei beren burua euskaraz maitatzeko eskaintzen zaien tresneriaren murrizta erantsi behar zaio kultur/hedabide/ entretenimendu/asialdi eskaintza zein erreferentzialitateetan, zerbitzuetan, zein lan arlokoetan besteren artean.

Helburu orokorra

Euskaraz oso-osoan bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, ohiko hizkuntza bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

EH-Bilduren hizkuntza-politikarako proposamena gaur egungo errealitatetik abiatuko da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa izango da. Hizkuntza politikaren oinarriak Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak proposatutako gutxienekoak izango dira:

- Burujabea, kanpoko esku-hartzerik gabekoa.
- Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona.
- Euskara erdigunera eraman eta baliabide nahikoak dituen: euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu eta praktikara eramango duena.
- Elkarlana, lidergo partekatua eta zeharkakoa: euskararen normalizazioa norbanako eta eragile guztien bultzadatik, auzolan estutik, eta erakunde zein administrazio ezberdinen koordinaziotik etorriko da.
- Hizkuntza politikaren xedeak euskararen hiztun komunitatea izan behar du, berau burutzera-koan udalerrri euskaldunak, hiriburuak eta eskualde buruak hizkuntza politika gauzatzeko garrantzia berezia izango dute.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Administrazioa euskalduntzea

- Administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea. Administrazioarentzat lan egiten duten enpresa guztiek hizkuntza-irizpideak bete beharko dituzte.
- Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
- 16 urtetik beherakoekiko harreman eta jardueretan administrazioak euskararen erabilerari lehen-tasuna emateko neurriak onartzea.
- UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.

2. Euskararen sormena eta zabalkundea bultzatu eta sustatzea

- Urte anitzeko hitzarmenak sustatuko ditugu euskarazko toki-komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko. Administrazio publikoaren eta sektorearen arteko lankidetzak iraunkorra sustatzea.
- Administrazio publikoaren euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen diren komunikabide guztietan.
- Euskal kulturaren sormena, kontsumoa eta nazioartekotzea sustatzea, euskal kultura indartzeko helburuarekin.
- Kirolaren euskalduntze-bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
- Gazteentzako euskarazko astialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
- Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- Migratzaileentzako laguntza-ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.

3. Eremu sozioekonomikoa euskalduntzea

- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- Jarduera arau-emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
- Eremu guztietako eragileekin —hau da, enpresa-elkarteekin, sindikatuarekin, gremio-elkarteekin, merkataritza-ganbarekin eta beste hainbat erakunderekin— akordioak bilatzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana har dezaten.
- Euskalduntze-planak garatu nahi dituzten enpresentzako finantzaketa-ildoak irekitzea.
- Euskarazko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta erakundeak bultzatzea.

4. Sentsibilizazioa eta euskalduntzea bultzatzea

- Sentsibilizazio-kanpainak aktibatzea, euskaldun izateko kontzientzia har dezaten eta euskararen erabilera indar dezaten, euskaraz bizitzea errazteko neurriekin batera.
- Euskararen erabilera bultzatzea kirolaren eta aisiaren eremuetan.
- Gazteentzako eskaintzan euskararen erabilerari lehentasuna ematea.
- Euskararen eremuko eragileei laguntzea lurraldeko/udalerriko hizkuntza-politikak definitu eta kudeatzeko lanetan.



ehbildu